

Forjarien Kanta



Urte asko dira Eibarko kanta zaharrak biltzen hasi nintzela, eta orduan atxeman nion forjarien kanta zati bati. Mende* honen lehen partean huelgetan kantatzen omen* zen. Zati hura* «Igela» aldizkarian argitaratu zuen Peillen-ek (ikus «Igela», 1. zenbakia, 5. orrialdea, 1962.eko otsailekoa*, Paris).

Geroztik, Agustin Retenagak gehitu zeutan beste zati bat, baina oraintsu arte ez dut izan osatzerik. Pepe Bulunbururi eskerrak, osatu ahal izan dut; berak, pazientzia handiz, erretiroa hartuta dabiltzan zaharren artean bete ahal izan du nire antzinako gogoia.

Eibartarrek, bertsogintzan jarduten dutenean, Gipuzkoako euskaraz egin ohi dute; eta hemendik sortzen zaiku kanta honen jatorriaren zalantza*. Egin ditugun galdeetatik, batzuen iduriz, kanta hau bertan sortua daiteke; baina, beste batzuen iduriz, Mondragoe aldetik ekarria omen da.

Eibarko lehenengo huelga 1897.ean izan zen, Kintana anaien lantegitik, edo, hobeto esan, lantegiagatik sortua. Bertako gertakariak*, xehetasunez*, Toribio Etxebarrak, bere «Viaje por el país de los recuerdos»-en, 23-25 orrialdeetan emanak ditu (Mexiko, 1968). Beharbada gehiegizkoa litzateke orduan kantatzen zela esatea, baina behabada bai. Geroztik, 1913 eta 1920.ean egin ziren huelgetan bai, orain bizi diren zaharrek diotenez.

Beraz, kanta honek ba du bere garrantzia gure sozio-historiarako. Bertan nabari* den gogortasuna, libertade eta justiziarekin bat-batean jabetu den herriarena da, sozialismoa eta anarkismoa herriaren bidegurutzean aurkitzen ziren garaikoa. Gure historiara-ko, ez dago dudarik, baliozko agiria* dugu.

Bere doinua magnetofonoz hartua dugu, eta gaurkoz letra soilik* emanen dugu. Hona hemen:

**Gaur forjariak lana utzita
gatoz guztiok kalera,
labeak oso itzaldurikan
jaikera bat egitera,
maillu, burdin ta gaiñerakoak
botarikan bazterrerara;
ez degu nai guk berrido sartu
leengo tokira lanera.**

Dinbili danba! goiz eta gabe,

**su eta keian tartean,
sosegu eta deskantsu gabe
gure buruen kaltean;
orregatikan lanak utzita
gatoz guztiok batean.**

Gora ta gora beti, gora forjarial
langille trebe zintzo da maillukaria.
Lurpera ta lurpera beti nagusia!
ez digute egingo eurak nai guzia.
Ez badigu ematen arrazola guri,
ez badigu ematen bear aña ongi,
sua emango diogu gure fabrikari
eta nagusiaren etxe guziari.

**Iru babarrun jatiagatik
orrenbeste neke, pena;
erdi auldua arkitutzen da
forjariaren barrena.
Gure kontura egin oi dute
nagusiak nai dutena,
langilleen bizkarretik gizendu
dute beren poltsa dena.**

**Oso goizetik lanian asi
su eta keian tartian,
dinbi ta danba! gelditu gabe
gutziz illundu artian,
erropa denak puskatzen eta
osasanaren kaltian.**


Ez badigu guri jornalik aunditzen,
berrido gu ez gera lanera biurtzen;
arrazoiakin degu gelago eskatzen,
iforgandik ez gera gu ikaratutzen.
Ez badigu ematen arrazola guri,
ez badigu ematen bear aña ongi,
sua emango diogu gure fabrikari
eta nagusiaren etxe guziari.

JUAN SAN MARTIN
Biltzaile eta ohargile

guztietariko
elektrodomestikak
sukaldearen
lagungarri



COCINAS



FRIGORIFICOS



LAVADORAS SUPERAUTOMATICAS



Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz

1971-n egindako produkzio haundiari eskerrak ditugu holako salneurriak